

KONTROL MOZIOA

“Moxal lege” deituriko legeen ondorioak direla-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

“Moxal lege” bezala ezagutu ditugun martxoaren 30eko 4/2015 eta 2015/01 legeen ezarpenak Udaltzangoaren lanetan ekar ditzakeen ondorioak direla eta, galdera egin genuen EH Bildu taldetik irailaren 14ko Zerbitzu Orokorretako Batzordean. Martin Ibabe Eceiza Herri Segurtasuneko eta Herri Babeseko zinegotzi ordezkariak bertan erantzun zuen, agertuz inongo eragozpenik ez zela aurreikusten.

Ondoren publiko egin ziren hainbat adierazpen, PSE-EEko kideen ahotik, hain zuzen ere, “moxal” adjektiboak laburtzen duen lege hauen izaera dela medio. Beraz, kontuan hartuta Donostiako Udal Gobernuaren PSE-EEk ere osatzen duela, Udal Gobernuaren baitan irizpideetan kontraesanak egon zitezkeelakoan, gaiari dagokion interpelazioa aurkeztu genuen, azaldu bezala, 2015eko azaroaren 16an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertu zena.

Interpelazioa, gaiaren konplexutasunean sakontzeko helburu zuena, eta horretarako aukera ematen zuen arren, esaldi soil batekin erantzunda izan zen: “Legeen ezarpenak ez duela inongo eraginik izan”. Aldiz, herritarren kezka areagotzen ari da eta udaltzain askoren partetik legeen ezarpenarekin izan dituzten ika-mikak ailegatu zaizkigu.

Betidanik udaltzainak izan dira herritarrek ondo-ondoan izan dituzten laguntzaileak, eta gertukoak izaten jarraitu behar dutela donostiarren nahia dela guztiz sinetsita gaude. Udaltzain askok eskatu izan dute Udaltzangoa jazarpen politikoetatik at uzteko. Herritarren nahia ere badela esan dezakegu. Aldiz, azken hilabeteotan Donostiako udaltzainak Udaltzangoari ez dagozkion eginbeharretan murgilduta ikusi ditugu. Hala bada, halako irizpide edo/eta aginduak jaso dituztelako da.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Horiek horrela, hauxe da gure **KONTROL MOZIOA**:

- 1.- Udaltzakerak eskatzen dion Udal Gobernuari irizpide argiak eman ditzala, zeinen arabera, Udaltzakeraren eguneroko jardunean herritarren zaintza eta sorospen lanak lehenetsiko diren, jazarpen politikoari dagozkion aritzeak alboratuta.
- 2.- Udaltzakerak agertu nahi du donostiarren oinarritzko eskubide eta askatasunak mugatzea helburu duten legeen aurka dagoela eta Udal Gobernuari eskatzen dion herritarren eskubide zibil eta politikoak bermatzeko baliabideak jar ditzala.

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea